

Kaletik auzora

Lazkaomendin datorren asteburuan ospatuko dira sanprudentzioak



GOIERRITARRA

Lazkaomendiko irudi bat, Aralar eta Txindokiko tontorra atzean ikusten direlarik.

Sanprudentzioak lazkaotar guztien festak dira, eta asteburu honetan jaiak kalean egongo bada ere, hurrengoan Lazkaomendira igoko da. Maiatzaren 4 eta 5erako auzokideek hainbat ekitaldi antolatu dituzte, urtero bezala sanprudentzioak auzora gerturatzeko helburuarekin.

Maiatzaren 4an hasiko dira lehenengo ekitaldiak. Urtero bezala, txirrindulari probak emango die hasiera sanprudentzioetako Lazkaomendiko ekitaldiei. Aurtengoa 26. aldia izango da, eta aurreko urteekin alderatuta izango du aldaketa txiki bat: ordutegia. Azkeneko bi urteetan goizez hasten ziren txirrindulariak martxan, baina aurten arratsaldeko 16:00etan egingo dute. Amaitu, 18:00etan amaituko da, eta ondoren hiru bikotek dantza libre ikuskizuna eskainiko dute.

Eta ziklistek pedalei eragiten dieten bitartean, haurrek izango

BERTSOLARIAK

Maiatzaren 5ean Mañukorta eta Zeberio ariko dira bertsotan

dute denbora nola pasa. Arratsaldeko 16:30ean, Koko eta Moko pailazoak aterako dira. Txirrindulari probaren ondoren, 21:00etan, urtero bezala, auzo afaria hasiko da. Afariaren ondoren, Etxabe anaiak ariko dira trikitixa eta panderoarekin.

Igandean, haur jokoak

Igandean ere haurrek izango dute beraiei zuzendutako ekitaldi bat. Egurdian haur jokoa egongo dira. Eguneko ekitaldi sorta, ordea, ordubete lehenago hasiko da. 11:00etan, San Joan Ante Portam Latinam er-

mitan meza nagusia izango da. Mezan Lazkaoko udalbatza egongo da. Mezaren eta jokoen ondoren, bertsolarien txanda izango da. Mikrofonoaren aurrean Mañukorta Berriatuko (Bizkaia) bertsolaria eta Aritz Zeberio beasaindarra arituko dira. Beraiekin batera txiste kontalariak eta trikitilariak ere parte hartuko dute festan.

Arratsalde partean herri kirolen tarteak izango da. Arrospide eta Larretxeak Urrezko Aizkorako final-laurdenetako errebantxa jokatzeko aukera izango dute. Plazan Iñaki eta Inaxio Perurena harri-jasotzaileak ere ariko dira. Leitzako aita-semeek erakustaldi polita emango dute, seguru. 18:30ean bertsolariak eta txiste kontalaria itzuliko dira mikrofono aurrera, eta, azkenik, San Prudentzio jaiak amaiera emateko, 19:00etan Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak ariko dira.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Inaxio Perurena Lazkaomendin ariko da maiatzaren 5ean, 17:00etan.



ALUMINIOS IRUKO, S.L.

- ZURGINTZA METALIKOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA
- P.V.C.
- POLIURETANOAK

ERAIKUNTZA METALIKOAK

Zubierreka industrialdea, 37 - 20210 LAZKAO
 Tel.: 943 16 14 49 - Faxe: 943 88 47 17